



■ HERNANI'N MUSIK NEIGHBOR

Ura patrikan sartu eta musika klasiko berezi batera salto egiteko aukera

Neighbor bikoteak kontzertua emango du gaur, 20:00etan Biterin. 'Ura patrikan' diskoa aurkeztuko dute, antzinako musikaren kantu propioekin. Sarrerak salgai Biterin, 7 euroan.

ANTZINAKO musikara eramango dituzte entzuleak, Maite Larburu hernaniarrak eta Josh Cheatham estatubatuarak, baina kantu propioekin eta musika tresna bereziekin. *Neighbor* bikotea osatzen dute Larburuk eta Cheathamek, eta kontzertua emango dute gaur, 20:00etan Biterin, Hernani'n Musik ekimenak antolatuta Sarrerak salgai daude, 7 euroan.

Amsterdametik Hernanira, maleta bete kantu

Amsterdamen bizi dira Larburu eta Cheatham, auzo berean. Musika ikasketek eraman zituzten bertara, duela 10 urte baino gehiago, eta ordutik, antzinako musika klasikoan eta ganbara musikan aritu dira. Ez dituzte, ordea, ohiko tresnak erabiltzen. Bestelako instrumentuak jotzen dituzte: gitarra, shakuhachia, sarangia, shruti-boxa, kontrabaxua, viola da gamba...

Kantu propioak, hernaniarren belarrietara

Horiekin osatu zuten beraien aurreneko diska, *Ura patrikan*. Larburuk jartzen du ahotsa, euskerazko, ingelesezko eta gaztelaniazko kantuetan, eta instrumentu barietate zabalenarekin laguntzen dio Cheathamek.

13 kantu biltzen ditu diskak, bikotearen kantu propioak eta estilo askotarikoak: folk, blues, jazz, brasilgo musika... Kantu horiek dira, herritarren belarrietara iritsaraziko dituz-



Maite Larburu hernaniarrak eta Josh Cheatham estatubatuarak osatzen dute Neighbor.

tenak, gaurko kontzertuan.

Zela Trovke film laburra ere, emanaldian

Kontzertuaren barruan, film labur bat ere emango dute: *Zela Trovke*, Asier Altuna zuzendariarena. Film horretan ere, Maite Larburu da protagonista.

Eslovakiako kantu tradizional bat da *Zela Trovke*, eta Larburu kantu hori interpretatzen ageri da, Holland Baroque Society orkestrarekin.

Biolina bidelagun, mundu osoan zehar

Txikitatik, biolina izan du bidelagun Maite Larburuk.

'Ura patrikan' diskoa aurkeztuko dute, kantu propioekin eta instrumentu bereziak erabiliz: shakuhachia, sarangia, shruti-boxa, viola da gamba...

Donostian eta Madrilen ikasi ondoren, Amsterdamera mugitu zen, eta bertan jarri zen bizitzen. Etxean egoteko tarte askorik ez dauka, ordea. Tokitik tokira ibiltzen da, Holanda, Belgika, Alemania eta Frantzia. Afrika eta

'Zela Trovke' film laburra ere emango dute, Maite Larburu protagonista dela. Eslovakiako kantu tradizional bat da 'Zela Trovke'.

Japonian ere izan da, antzinako musika festibaletan.

Orkestra ugarirekin aritu da lanean, eta antzinako musikari askoren gidaritzapean: Ton Koopman, Lars Ulrik Mortensen, Frans Bruggen, Gustav Leonhardt... ■

■ ZINEA

'La entrega' eta 'Pancho, el perro millonario' Biterin

Beste bi pelikula ikusteko aukera izango da Biterin, asteburuan: *La entrega*, helduentzako, eta *Pancho, el perro millonario* haurrentzako. Gaur bertan emango dute *La entrega*, 22:30etan. Guztira, bost aldiz emango dute, astelehenera bitarte. *Pancho, el perro millonario*, berriz, larunbatean eta igandean, 16:30etan. ■

■ GOIZ EGUZKI

Eskurtsioan izen ematea gaurtik

Eskurtsioa antolatu du Goiz Eguzki azaroaren 6an.

Loiolako santutegia, San Inazio de Loiolaren etxea eta Ferrokarrilaren museoa bisitatu dituzte, eta Getarian bazkaldu. Izen ematea gaur zabalduko da, 15 euroan, Goiz Eguzkin. Plazak mugatuak dira, 55 laguntzat dago toki. ■

■ JABETZE ESKOLAK

Izena emateko azken eguna gaur

Jabetze Eskoletan, sei ikastaro antolatu ditu Berdintasun Sailak. Gaur da azken eguna izena emateko, eta hiru aukera daude: Plaza Feministako bulegoan, 943 33 70 17 telefonon edo maialen-a@hernani.net helbide elektronikoan. ■

■ UDALA

Tokiko Gobernu batzordea gaur

Tokiko Gobernu batzordea bilduko da gaur, goizeko 09:15etan, lau puntu eztabaidatzeko. Tartearen, Artetik elkarte kulturalaren kontratua luzatzea. ■

■ PRESO ETA IHESLARIAK

Manifestazioa Lasarten, Ibon Fernandezek alde

Gaur ez da mobilizatorik izango Hernanin, eta Lasarte-Oriara bideratu dute deialdia.

Manifestazioa egingo dute Ibon Fernandezek alde, Okendo plazatik abiatuta, 20:00etan. ■

HONDAKINEN BILKETA
"ZALANTZAK ARGITZEN"

ORGANIKOA

MODU HONETAN JASOKO DA

BETI KUBO MARROIAN (Ez grisean)

Hernaniko
Udala

>>

- Kuboaren barruan **poltsarik gabe**
- Kuboaren barruan **poltsa konpostagarrian**
(ok compost zigilua duena)

- Poltsak herriko dendetan salgai daude.
- Zalantzak argitzeko edo materiala berritzeko (kirtanak, kuboak...)
- Hondakinen bulegoa. 943 337 000 / 900 840 090, atez-ate@hernani.net, Udaletxeko 2. solairuan.

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Chucla Kardaberaz 48 943 551793 • Gaeuz: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURADIA
GAUR Eguzkia eta beroa izango dira protagonista. Antzeko jarraituko dugu, oso laino gutxirekin eta tenperatura altuekin. Giro atsegina. Min.16° / Max.26°

BIHAR Giro atseginarekin jarraituko dugu. Dena den, gero eta laino gehiago izango dira, eta tenperatura bi-hiru gradu jaitsiko da. Min.15° / Max.23° (euskalmet)

UDALA PLENOA



PSE-EEK adierazi zuen neurri gehiago hartu behar direla, ur mozketetan.

Uraren araudia aldatu da, baina berriz errebisatuko dute

Ur mozketez informatzeko, pautak berriak onartu dituzte, baina berriz aztertuko da gaia, PSE-EEK eskatuta. Koxkaren protokoloa ere onartu dute.

ASTEARTEKO plenoan 11 puntu landu zituzten Hernaniko Udal taldeek. Zehaztu zuten, 2015 ekitaldiko tasak eta zergak mantenduko dituztela, eta egutegi fiskala ere antzekoa izango dela. Koxka elkarteak egindako protokoloa ere onartu zuten, eta uraren kudeaketarako Udal Araudiari, aldaketa bat egin diote: ur mozketak egiten direnean, beste pautak batzuk jarraituko dituzte, herritarrei informatzeko. Dena den, berriz errebisatuko dituzte pautak horiek.

Dirulaguntzak mantenduko dituzte, tasa eta zergetan

Plenoa hasteko, hartutako ebazpenen eta aurrekontuen exekuzio egoeraren berri eman zuen Gobernu Taldeak: «orokorrean, esan daiteke udaletxearen egoera oso ona dela». Segidan, kontu fiskalei heldu zieten. Zehaztu zuten, 2015 ekitaldian tasak eta zergak mantendu egingo dituztela, eta baita aurten martxan jarri dituzten dirulaguntzak: errenta bajeen IBIA ordaintzeko izan dutena, adibidez. Bilduren aldeko botoekin onartu zen ordenantza fiskala, eta EAJ, PSE-EE eta HI! abstentitu ziren.

Egutegi fiskala ere, antzekoa izango da 2015ean. Aho batez onartu zuen plenoak. Etxebizitzak alokairuan jartzeko oinarrien puntua, berriz, plenotik kanpo utzi zuten,

2015ean, mantendu egingo dira aurten zerga eta tasak ordaintzeko eman diren dirulaguntzak.

datu batzuk zehaztu gabe daudelako oraindik.

Ur mozketetan, elkarte eta merkatariei abisatu

Ur mozketaren gaia jarri zuten berriz mahai gainean. Gobernu Taldeak onartu zuen, urriaren 1eko ur mozketan eskas geratu zela Udal Araudia, herritarrei informatzeko. Horregatik, araudiaren artikulua bat aldatuko, eta mozketaz jakinarazteko pautak aldatu: merkatariei eta elkartei jakinaraziko zaie.

Aldaketa onartzea erabaki zuten, Bildu eta EAJren aldeko botoekin, baina berriz aztertuko dute, PSE-EEK eskatuta: «uste dugu zerbait gehiago behar dela, benetan denak enteratzeko; portaletan bandoak jartzea izan daiteke konponbidea, arazoa ez errepikatzen. Horregatik, beste buelta bat eman nahi diogu gaiari». Gainera, azaldu zuten, elkartei erantzukizuna ematea dela, haiek jakinarazi behar izatea herritarrei.

EAJk, bere aldetik, aldaketa onartzearen alde egin zuen: «aldaketarekin, araudia hobe-

Koxka elkartearen protokoloa onartu zuen plenoak, alderdi guztien adostasunarekin.

to dago behintzat. Eta bihar mozketak bat emango balitz, hobeto informatuko da. Aztertuko dugu berriz gaia, alegazioak aurkezten direnean».

Koxkaren protokoloa onartuta

Koxka elkarteak aurkeztutako protokoloa sinatzea ere onartu zuen plenoak, alderdi guztien adostasunarekin. Horren arabera, udaletxeko arduradunek Koxkaren txostena eta iritzia hartu beharko dute kontuan, edozein obra egiterakoan, desgaitasunen bat duten pertsonen kalterik ez egiteko.

Bukatzeko, lau mozio aztertu eta onartu zituen plenoak: emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunari buruzkoa; Kataluniako kontsulta bertan behera uztearekin desadostasuna erakustea (PSE-EEren kontrako botoekin); liburu maileguengatik liburutegiak ordaindu beharreko kanonarekin desadostasuna erakustea (kanona ez ordaintzea erabakitzerakoan, dena den, PSE-EE abstentitu egin zen); eta herri kurduen agurra eta elkartasun adierazpena. ■

TXANTXANGORRI

Sagardo dastaketa, asteazkenean

Txantxangorri elkarteak, sagardo dastaketa egingo dute datorren asteazkenean, azaroak 5. Arratsaldeko 19:30etan izango da, eta Juan Zuriarrain enologoak emango du. Sagardo bakoitzaren berezitasunak azalduko dira bertan. Izen ematea, egunean bertan egingo da, Txantxangorri elkarteak, 19:00etatik aurrera. Prezioa, 5 euro. ■

San Huberto eguna ospatzeko, afaria

San Huberto egunean, azaroaren 7an, afaria egingo dute Txantxangorri elkarteak, 20:30etan hasita. Bertan afaltzeko, astelehena da azken eguna, izena emateko. 30 euro dira. ■

BELDUR BARIK

Indarkeria sexistaren kontra, lehiaketa

Beldur Barik lehiaketa antolatuko dute aurten ere, indarkeria sexista prebenitzeko. 12 eta 26 urte bitarteko gazteek, ikusentzunezko lanak egin behar dituzte, erakutsiz nola egiten dieten aurre, mutil eta neskek, ezberdintasun egoerei, Beldur Barik jarrerarekin. Bakarka edo taldeka egin daitezke lanak, eta horiek aurkezteko epea azaroaren 12an bukatzen da. Proposamenak jarrera@beldurbarik.org helbidera bidali behar dira. Bi kategoria egongo dira: 12-17 urte bitartekoak, eta 18-26 urte artekoak. Kategoria bakoitzean, 500 euroko lehen saria banatuko da, eta 300 euroko aipamen berezia. Informazio gehiago, www.beldurbarik.org web orrian. ■



BERRIAK ELKARTEA

Pausokari, 1.000 euroko laguntza

Berriak merkatariei elkarteak, zozketa antolatuko duen Pausokari Egunean, eta tiketak saltzen lortutako 1.000 euroak, elkartei eman zizkion asteazkenean, laguntzeko. Zozketako opariak ere eman zizkionten, irabazlea ez baita azaldu horiek jasotzera. ■

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

II. URTEURRENA

Joaquin Peñagarikano Zubeldia

Zeruan ageri diren
Izarrei begira
zutaz oroitzuz
aurrera eginez bidea.
Beti zaude gure bihotzetan.

ETXEKOAK

Hernanin, 2014ko urriaren 31n

IRAGARKI MERKEAK

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,.... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**